

Donostia, 2023ko abuztuaren 16a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 93. artikulua babesean, honako ARAU PROPOSAMEN hau aurkeztu dio Gobernu Batzordeak 2023ko abuztuaren 8an onartutako **Ondasun Higiezin gainerako Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamenari**, Udaltzaren eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onar dezan:

1. artikulua

12.6 artikulua aldatzeko arau-proposamena. Honela geratzeko da idatzita:

6. Hobariak:

Kuota osoaren % 35eko hobaria, katastro-balioa **153.000 eurotik** gorakoa ez duten etxebizitzetarako.

Kuota osoaren **% 20ko** hobaria, katastro-balioa **153.000 euro eta 200.000 euro** arteko duten etxebizitzetarako.

Kuota osoaren **% 10eko** hobaria, katastro-balioa **200.001 eta 300.000 euro** arteko duten etxebizitzetarako.

Kuota osoaren **% 0ko** hobaria, katastro-balioa **301.000 eurotik** gorakoa duten etxebizitzetarako.

Hobari horiek lortu ahal izateko, eguzkitik edo beste energia iturri berriztagarriren batetik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta eduki behar dira. Hobaritan jasotako kantitateak ez dauka inbertitutako jasotako zenbatekoaren % 5 (BEZ eta guzti) gaitzerik.

Hobari fiskal hori aplikatzea bateragarria izango da administrazio honen edo beste administrazio edo erakunde batzuen dirulaguntzak jasotzearekin, baldin eta egindako inbertsioetatik jasotako dirulaguntzek eta hobariak ez badute gaitzen inbertsio horren guztizko zenbatekoa.

Eskaera egin eta hurrengo zergaldian hasiko da aplikatzeko epea, eta ezin izango da inola ere 5 zergaldi baino luzeagokoa izan.

Hobari hori aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioak, kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak izatea, betiere Administrazio eskudunak homologatuta.

Justifikazioa

Zerga-onurek (administrazioentzako gastu fiskalak) diru-sarrera publikoak murriztea dakarte, baina ezin da zehatz-mehatz jakin horien norainokoa, eta horrek esan nahi du baliabide gutxiago daudela zuzeneko politika publikoak egiteko. Hori dela eta, Elkarrekin Donostiak uste du zerga-onurak diseinatzerakoan ezinbestekoa dela zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa kontuan hartzea, proportzionaltasun-irizpide bat aplikatuz; izan ere, bestela, gaitasun ekonomiko gutxien dutenek egiten dute ahalegin handiena, eta askotan ezin izaten dira onura fiskal horien onuradun ere izan.

2. artikulua

23. artikulua b) letra aldatzeko arau-proposamena. Honela geratuko da idatzita:

b) Ostatu-jarduerei, pentsioei, ostatuei eta abarri lotutakoak, **erabilera turistikoko etxebizitzak izan ezik.**

Justifikazioa

Erabilera turistikoko etxebizitzak ez datoz bat Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean ezarritako helburu sozialarekin; izan ere, erabilera turistikoko etxebizitzak jarduera ekonomiko bat dira, eta horrek esan nahi du etxebizitza horiek erabilera arrunteko etxebizitza-merkatutik ateratzen direla.

Hori dela eta, Elkarrekin Donostia taldearen ustez etxebizitza mota hori ezin da etxebizitza hutsaren errenergia ordaintzetik salbuetsi.

3. artikulua

23. artikuluko f) idatz-zatia kentzeko arau-proposamena.

Justifikazioa

Gure ustez, etxebizitza hutsaren errekgua ordaintzetik salbuesteko arrazoia ez da etxebizitzaren egoera edo hori konpontzeko obrak egin eta alokairuan jartzeko aukera; izan ere, jabeek ezin badituzte konponketa-obra horiek egin beti daukate etxebizitza salgai jartzeko aukera, horren bidez dagozkien diru-sarrerak lortuko lituzkete eta ondorioz ez lukete OHZrik edo horrekin zerikusia duen bestelako gasturik ordaindu beharko. Era berean, helburua etxebizitzaren helburu soziala bermatzea da, eta hutsik dagoen etxebizitza batek ere ez du helburu hori betetzen.

4. artikulua

23. artikuluko k) idatz-zatia kentzeko arau-proposamena.

Justifikazioa

Atal honen kasuan, etxebizitza huts baten edo gehiagoren titulartasuna aipatzen da, 170.000 euroko katastro-balioaren mugarekin. Errekargua etxebizitza hutsei aplikatzen zaie, alokairuko edo erosketako etxebizitzaren merkatura irtetea sustatu ahal izateko; horrelako salbuespenek ez dute helburu hori betetzen, ezta etxebizitzaren helburu soziala bermatzen ere.

5. artikulua

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.

Victor Lasa Briz.
Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea